

## **Giroa eta eraginak**

*Deia*, 1977-07-01.

Psikologoek badakite gizonaren eraginak gehienetan ilunak eta aurkigaitzak direla.

Honetxegatik da gizon-portaeraren gaitzak sendatzea honen zaila. Gizon hau legehausketa batean erortzen denean, legegizonak eta epaileak behar dituzte gizon honen aurretikoak eta heziketan izan dituen eraginak eta influentziak kontuan euki.

Bestela, epaiketa ez litzateke juxtua izango.

Honegatik behar dugu gaurko gure egoera bide hontan bertan ulertzen ahalegindu.

Orain, kolpetik berrogei urtetako ilunpe gaizto hontatik atera, eta badirudi hauteskunde hoietatik denak Jordango urak osorik garbitu bagindu bezala jardun behar genukeela: askatasun-borrokalaria, gorrotorik gabe; polizi errepresiboak, ikasi dituztenak kolpetik ahaztuta; funtzionariak, orain arteko agintarikeriarik gabe; heziketa politikorik izan ez duten gazteak, demokrazia baten heziak izan balira bezalako zentzuarekin; elkar inoiz entzun ez diotenak, ikastolatik hasi eta aurrerantzean politika giro normal batean beti bizi izan balira bezala gozoki arazoak konpontzen, eta sindikatoetako langileak, nagusiarekin gauzak beti anaikorki edo behintzat errespeto osoan aritu izan balira bezalako jokabidearekin.

Hau, aurre-eragin gabeko portaera hau, ezina da.

Gaur, gauzak zuzentzen eta garbitzen ahalegindu behar dugu, baina ez utopia batetik, ditugun sustraiak ulertu eta erakarriez baizik.

Ez gara, honela, honen radikalki arituko.

Eta juxtuagoak izango gara.